

**Espediente zk./Nº Expediente:** 2022SDBD0014**Gaia/Asunto:** 6.3. DIRULAGUNTZA LERROA: INAUTERIAK 2023**Eskatzailea/Solicitante:** SDBD**NAN(IFK)/DNI(NIF):** 90909090A**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRETERIA

**6.3. DIRULAGUNTZA LERROA: INAUTERIAK – 2023. OINARRI ESPEZIFIKOAK.**  
**LÍNEA DE SUBVENCIÓN 6.3.: CARNAVALES – 2023. BASES ESPECÍFICAS.**

**1- Dirulaguntzaren xedea**

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Errenterian kokaturiko pertsonak, elkarteak edo irabazi-asmorik ez duten bestelako entitateak 2023ko inauteriak direla-eta antolatutako kultur jardueretako programak kofinantatzeko helburuarekin.

**2.-Dirulaguntza zein partidaren kargura egingo den eta guztirako gehienezko kopurua.**

Inauteri jarduerak kofinantatzeko diru-laguntzen zenbatekoa 2023ko honako partidaren kargura izango da:

- 1.0830.481.02.338.00: Dirulaguntzak  
Inauteriak

Diruz-lagunduko den leerro honetarako dagoen aurrekontua 22.000,00.-eurokoa da. Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke

Dirulaguntza deialdi hau onartzen den unean 2023ko aurrekontua izapidetzen ari bada ere, espedientearen jaso dago alkateak aurkeztu duen aurrekontu proiektuak aurreikusten duela aipaturiko partida.

**1- Objeto de la subvención**

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades vinculadas a los carnavales de Errenteria, organizadas y llevadas a cabo por particulares, asociaciones u otras entidades sin ánimo de lucro radicadas en el municipio, con motivo de los carnavales del año 2023.

**2- Partida presupuestaria a la que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las misma.**

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas vinculados a los Carnavales irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2023.

- 1.0830.481.02.338.00: Subvenciones  
Carnavales

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 22.000,00.- euros. Si mediante la correspondiente modificación de crédito se incrementara la cantidad, se podrá proceder a una nueva autorización del gasto imputable a esta convocatoria.

Si bien el presupuesto de 2023 se encuentra en tramitación en el momento de aprobarse la presente convocatoria de subvención, consta en el expediente que el proyecto de presupuesto presentado por la Alcaldesa contempla la partida mencionada.



### 3.- Pertsona edo entitate onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze era.

Oro har, diru-laguntzetarako aukera izan dezakete Erreterian 2023ko inauterietan kultura intereseko jarduerak gauzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko Pertsona fisikoek edo entitate juridikoek.

Salbuespen gisa, Erreteriatik kanpo kokaturiko pertsonak edo entitateek diru-laguntzetarako aukera izan dezakete, jardueraren zati nabarmen bat udalerrian bertan gauzatu edo herriarentzat interesgarria dela jotzen bada.

Irabazi-asmorik gabeko entitateetat hartuko dira elkartearen helburuekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarrekin lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutena.

#### Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek Erreteria Udalak 2023 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren Seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengo ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

- Eskaera egin duen elkarte edo erakundearen estatutuak. Baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.
- Erreteria Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian

### 3.- Personas o entidades beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

Con carácter general podrán optar a las subvenciones cuantas personas físicas o entidades jurídicas sin ánimo de lucro radicadas en Erreteria que realicen actividades de interés cultural que se desarrollen durante los carnavales del año 2023.

Excepcionalmente, podrán acceder a las ayudas las personas o entidades radicadas fuera de Erreteria cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Se consideran entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

#### Documentación a presentar con la solicitud:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Erreteria durante el año 2023, la siguiente documentación:

- Estatutos de la asociación o entidad solicitante. Si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación
- El Ayuntamiento de Erreteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la



eskututako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra -  
Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa  
egunean izatearen kontsulta

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa  
egunean izatearen kontsulta.

#### 4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Diru-laguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta 30 egun naturaleko epean amaituko da.

#### 5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, jarraian agertzen den taularen arabera, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, aurrerago adieraziko den mugarekin.

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

- Tesorería General de la Seguridad Social -  
Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

#### 4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará transcurridos 30 días naturales.

#### 5.- Criterios de valoración de las solicitudes.

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, de la manera que aparece en la tabla que sigue a continuación, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite que más adelante se indica.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

### **INAUTERIAK DIRULAGUNTZA 2023 – IRIZPIDEAK SUBVENCIONES DE CARNAVALES** **2023 – CRITERIOS KONPARTSAK/COMPARSAS**

#### **KONPARTSAK/COMPARSAS**

|                                                                               |                               |                                                                         |
|-------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| • Ostiral edo igandean egun batean desfilatzen duen elkarte edo ikastetxeari. | 75 puntu bitarte/<br>Hasta 75 | Si es una Asociación o colegio que desfila un día en viernes o domingo. |
|-------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|



|                                                                                                                | puntos                                           |                                                                                                                 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Parte hartzaile kopuruaren arabera</b>                                                                      | <b>50 puntu bitarte/<br/>Hasta 50 puntos</b>     | <b>Dependiendo del número de participantes</b>                                                                  |
| 20 eta 79 kide bitarte                                                                                         | 25                                               | De 20 a 79 participantes                                                                                        |
| 80 eta 120 kide:                                                                                               | 40                                               | De 80 a 120 participantes                                                                                       |
| 121 kidetik gora                                                                                               | 50                                               | Más de 121:                                                                                                     |
| <b>Parte hartuko duten emakume/gizon/beste kopuruaren arabera:</b>                                             | <b>12,5 puntu bitarte/<br/>Hasta 12,5 puntos</b> | <b>Dependiendo de la proporción de mujeres/hombres/otras identidades participantes</b>                          |
| Orekatua                                                                                                       | 12,5                                             | Equilibrio (40 – 60 %)                                                                                          |
| Desoreka                                                                                                       | 5                                                | Desequilibrio                                                                                                   |
| Jarduera euskaraz garatzeko hartu diren neurriak                                                               | 12,5                                             | Medidas adoptadas para garantizar la presencia del euskera en la actividad.                                     |
| idatzizko eskarri guztietan euskarari lehentasuna ematen zaio.                                                 | 2,5                                              | Se prioriza el uso del euskera en todos los soportes escritos.                                                  |
| Konpartsako kideei ematen zaizkien argibideetan euskarari lehentasuna ematen zaio.<br>(ahozko zein idatzizkoa) | 5                                                | Se prioriza el uso del euskera en las indicaciones que se les da a los miembros de la comparsa (oral y escrita) |
| Desfilerako aukeratutako kanten artean euskal kanturik ere bada                                                | 5                                                | Se ha introducido alguna canción en euskera en el repertorio de música del desfile                              |
| <b>• Larunbatean eta igandean (biak barne) desfilatzen duen elkarte edo ikastetxeari.</b>                      | <b>100 puntu bitarte/<br/>Hasta 100 puntos</b>   | <b>• Si es una Asociación que participa en el desfile del sábado y el domingo (ambos inclusive)</b>             |
| <b>Parte hartzaile kopuruaren arabera</b>                                                                      | <b>75 puntu bitarte/<br/>Hasta 75 puntos</b>     | <b>Dependiendo del número de participantes</b>                                                                  |
| 20 eta 79 kide bitarte                                                                                         | 50                                               | De 20 a 79 participantes                                                                                        |
| 80 eta 120 kide:                                                                                               | 62,5                                             | De 80 a 120 participantes                                                                                       |
| 121 kidetik gora                                                                                               | 75                                               | Más de 121.                                                                                                     |
| Parte hartuko duten emakume/gizon kopuruaren arabera:                                                          | 12,5 puntu bitarte/<br>Hasta 12,5 puntos         | Dependiendo del número de mujeres/hombres participantes                                                         |
| Orekatua (%40 - 60)                                                                                            | 12,5                                             | Equilibrio (40 – 60 %)                                                                                          |
| Desoreka                                                                                                       | 5                                                | Desequilibrio                                                                                                   |
| Gizonak/emakumeak soilik                                                                                       | 0                                                | Sólo hombres / mujeres                                                                                          |
| Jarduera euskaraz garatzeko hartu diren neurriak                                                               | 12,5                                             | Medidas adoptadas para garantizar la presencia del euskera en la actividad.                                     |



|                                                                                                                |            |                                                                                                                 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| idatzizko eskarri guztietan euskarari lehentasuna ematen zaio.                                                 | <b>2,5</b> | Se prioriza el uso del euskera en todos los soportes escritos.                                                  |
| Konpartsako kideei ematen zaizkien argibideetan euskarari lehentasuna ematen zaio.<br>(ahozko zein idatzizkoa) | <b>5</b>   | Se prioriza el uso del euskera en las indicaciones que se les da a los miembros de la comparsa (oral y escrita) |
| Desfilerako aukeratutako kanten artean euskal kanturik ere bada                                                | <b>5</b>   | Se ha introducido alguna canción en euskera el el repertorio de música del desfile                              |

**INAUTERIE TAKO EKINTZA BAT ANTOLATZEN DUTEN ENTITATEAK**  
**ENTIDADES QUE ORGANIZAN UNA ACTIVIDAD DENTRO DE LA PROGRAMACIÓN DE CARNAVALES**

|                                                                                              |                                              |                                                                                              |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|
| • Inauterietako ekintza bat antolatzen duen elkarte bada                                     | <b>75 puntu bitarte/<br/>Hasta 75 puntos</b> | • Si es una Asociación que organiza una actividad de carnaval                                |
| <b>Herritarren esku hartzea sustatzea, beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzat.</b> | <b>12 puntu bitarte/<br/>Hasta 12 puntos</b> | Promoción de la participación ciudadana, colaboración con otras entidades y agentes.         |
| •Jarduera elkarte batek baino gehiagok antolatzea                                            | <b>2</b>                                     | •Actividad organizada por más de una asociación                                              |
| •Herritarrek parte hartzeko aukera ematea                                                    | <b>5</b>                                     | •Oportunidad para la participación ciudadana                                                 |
| •Boluntarioen lana                                                                           | <b>5</b>                                     | •Trabajo de voluntarios y voluntarias                                                        |
| <b>Proposatutako programa / jardueren antzekorik ez izatea (proposamen berritzaileak).</b>   | <b>5 puntu bitarte/<br/>Hasta 5 puntos</b>   | Inexistencia de programas / actividades similares a las propuestas (propuestas innovadoras). |
| •Jarduera berria                                                                             | <b>3</b>                                     | •Programa/actividad nueva                                                                    |
| •Elkarte honek besterik ez du egiten                                                         | <b>2</b>                                     | •Sólo lo realiza esta asociación                                                             |
| <b>Programaren ibilbidea eta proiektzioa</b>                                                 | <b>13 puntu bitarte/<br/>Hasta 13 puntos</b> | <i>Trayectoria y proyección del programa.</i>                                                |
| <b>Ibilbidea:</b>                                                                            |                                              | <b>Trayectoria:</b>                                                                          |
| •Urte kopurua, noiztik egiten den programa / jarduera                                        | <b>3</b>                                     | •Nº de años que lleva realizándose el programa / actividad                                   |
| <b>Proiektzioa:</b>                                                                          |                                              | <b>Proyección:</b>                                                                           |
| Elkartearen inguruko proiektzio                                                              | <b>2</b>                                     | •Con proyección en el entorno de la asociación                                               |



|                                     |           |                                         |
|-------------------------------------|-----------|-----------------------------------------|
| • Herri mailako proiektzioa         | <b>4</b>  | • Con proyección en el municipio.       |
| • Eskualdeko proiektzio             | <b>6</b>  | • Con proyección en la comarca          |
| • Eskualdetik aratagoko proiektzioa | <b>10</b> | • Con proyección más allá de la comarca |

| Parte-hartzaile kopuruaren arabera                    | 20 puntu bitarte/<br>Hasta 20 puntos     | Dependiendo del número de participante                  |
|-------------------------------------------------------|------------------------------------------|---------------------------------------------------------|
| • 20 eta 79 kide bitarte                              | <b>5</b>                                 | • De 20 a 79 participant                                |
| • 80 eta 120 kide:                                    | <b>10</b>                                | • De 80 a 120 participante                              |
| • 121 kideetik gora                                   | <b>20</b>                                | • Más de 121:                                           |
| Parte hartuko duten emakume/gizon kopuruaren arabera: | 12,5 puntu bitarte/<br>Hasta 12,5 puntos | Dependiendo del número de mujeres/hombres participantes |
| • Oreakatua (%40 - 60)                                | <b>12,5</b>                              | • Equilibrio (40 – 60 %)                                |
| • Desoreka                                            | <b>5</b>                                 | • Desequilibrio                                         |
| • Gizonak/emakumeak soilik                            | <b>0</b>                                 | • Sólo hombres / mujeres                                |
| Jarduera euskaraz bada                                | <b>12,5</b>                              | <i>Si se desarrolla la actividad en euskera</i>         |
| • Dena euskaraz bakarrik                              | <b>12,5</b>                              | • Todo únicamente en euskera                            |
| • Gehiena euskaraz                                    | <b>8</b>                                 | • Mayoritariamente en euskera                           |
| • Dena elebitan                                       | <b>6</b>                                 | • Todo en bilingüe                                      |

• Dirulaguntza jasotzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

• El mínimo de puntos para obtener subvención será de 20 puntos.

## 6.- Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

% 80 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

% 20 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

## 6.- Abono de la subvención.

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

80 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

20 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

## 7.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

## 7.- Justificación de la subvención.



Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2023ko martxoak 31.

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 31 de marzo de 2023.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2023 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2023:

- a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.
- b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

- a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.
- b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

**Ohar garrantzitsua:** deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2023 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

**Nota importante:** esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2023. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.